

LAN BATZORDE IREKIAK

| | | | |
|-----------------|---------------------------|-----------------|-------------------|
| TALDEA | ONGIZATE BATZORDEA | | |
| IRAUPENA | 1.5 ORDU | EGUNA | 2018-02-20 |
| GAIA | - | DEIALDIA | 19:00 |

PARTE HARTZAILEAK

| | | | |
|------------------------|-----------------|------------------|------------------|
| Iñaki Etxezarreta | Jabier Garcia | Arantxa Bidegain | Endika Igarzabal |
| Aratz Igartzabal | Xabier Barriola | | |
| Sarriegi (ezin etorri) | | | |

ERABAKIAK

| GAIA | EKINTZAK | ARDURADURA | NOIZKO |
|---------------------------|---|-------------------|---------------|
| ZABORRAK | <ul style="list-style-type: none">Gabiriako hainbat etxe (50) daude Ezkio/Itsasoko zabor-guneetan botatzen dutenak. Udal hauek konpentsazio ekonomiko bat eskatu dute, herri bakoitzak sortzen duenaren arabera ordaintzen duelako eta orain dagoen bezala, Gabiriako herritarrena beraiek ordaintzen dute. Formularen bat adostu beharko da bi udalekin.Konposta egin nahi ez dutenentzako, aukera bat izan liteke dauzkagun bi zabor-guneetan organikoen kontenedoreak jartzea, sarrera mugatuarekin. Horren kostua, erabiltzaileen gain izango litzateke. Sasietarekin negoziatuko da.Hurrengo batzordean erabakiko da errefusaren kontenedorea astean behin irekitzen dela jarri edo ez. Urtarrileko datuak onak dira, 5.5kg/bizt. hilabetean, eta eboluzioa ikusiko da.Altzari eta traste zaharren arazoa ez da amaitu. Egutegia handiagoan jarriko da, ea zerbait lortzen den. | | |
| ETXEBIZITZA | <ul style="list-style-type: none">Etxe hutsetan bereizketa egin liteken enteratuko gara, ez baita gauza bera kaskoan egon etxe bat hutsik edo beste auzo batean.Bihar Alokabideko arduradun batekin elkartuko gara, alokairuaren inguruan dauden aukerak aztertzeko. Informatzeko da gehienbat.Arroako gaian ez dago berririk. | | |
| RALLYSPRINTA | <ul style="list-style-type: none">Betiko ibilbidea izango da aurten. | | |
| AUTOBUS ZERBITZUA | <ul style="list-style-type: none">Baltsalekun autobus geltokia egin berri da. | | |
| PANEL INFORMATIBOA | <ul style="list-style-type: none">Oraindik ez dira jarri. | | |
| EGUNEKO ZENTROA | <ul style="list-style-type: none">Ez dago berririk. | | |
| DESFIBRILADOREA | <ul style="list-style-type: none">Aurrekontuak lortu dira eta Udaletxeko sarreran jartzea da asmoa epe laburrean, denon eskura. | | |

HURRENGO BILERA: apirilak 18, 19:00tan